

Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartzen duten gida turistiko gero eta gehiago daude, azkena Michelinek argitaratua.

N. ARBELBIDE-E. AGIRRE

Baiona-Donostia

Euskal Herria existitzen da. Gida Turistikoek, hasteko, atzeman dute. Edo agian, Euskal Herria lutzaz baztertu nahian ibili ondoren, azkenean, bere existentzia ukaezina bilakatu zaie. Azken adibidea, Michelin gida egile historikoaren ‘Gida berdeen’ bildumako *Pays basque* alea. 80 urte hauetan gida lanetan diharduela, izan dadin bidaienak zein, jatetxeenak bere izar banaketa eta guzti, aurten, lehen aldiz, Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartzen duen liburuxka kaleratzea erabaki dute. Mapatxo bat eta guzti. Mementoko frantsesek bakarrik argitaratua dute, baina gaztelaniaz kaleratzeko asmoa erakutsi dute baita.

Zazpi probintziak zeharkatzen ditu gida honek, muga administratiboek kasurik egin gabe. Ipar eta Hego, lurraldetasuna errespetatzen du erabat. Horrez gain, berezat interesgarriak diren herrien zerrenda ordena alfabetikoan antolatu du. Larrañ, Leire eta Maule bata bestearen ondoan daude. Lurraldearren eremua zein izanen den nola erabaki duten galdegitekoan hauxe erantzun du David Brabis gidaren zuzendariak: «Euskal kulturaren mugak ditugu hau-tatu, besterik gabe».

Detaile bat dirudi, baina iraul-tzaño bat izan daiteke ere nonbait, turismogintzaren sektorearen begirada eta jarrera aldatze horrek ukantzen dezakeen eragina ez baita ttipia. Jakinez, Michelin gida mintzatzeko bakarrik, apiriletik salgai dagoela, jadanik 25.000 ale erosiak izan dira.

ALDAKETA TURISTENGANDIK ETORRI DA.


Ordu arte, Ipar Euskal Herria Akitaniako gida zuen sartua eta Hego Euskal Herria Espainiakoan. Aldaketa, beren erosleen eskererari erantzuteko egin omen dute: «Gero eta gehiagok eskatzen zigu-tent Euskal Herri osoa kontuan hartzen zuen gida bakar bat. Begi bistakoa baita, Frantziako Euskal Herrira heldu direnek beti itzuli bat egiten dutela Espainiakotik, eta alderantziz. Argitalpen berri horrekin lortu duguna da eskas horren betetzea. Egia da aitzineko gidetan Euskal Herriak ez zuela merezi zuen lekua. Espazio her-tsiégia ematen genion», onartzen du Nadia Bosquès gidaren erre-daktore buruak.

Argumentu komertzialak laster konbentzitu baditu, Euskal Herriak azkenaldian bizi arrakastak ere badu zer ikusia horretan: «Joe-ra berrien artean sartzen da es-



Hondarribitik hartutako irudia. Atzean, Hendaia honartz eta Larrun mendia. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Gida turistikoetan, Euskal Herria modan



Euskal Herria ezagutzeko argitaratutako gidetako batzuk. NORA ARBELBIDE